


Hiru txerrikumeak eta haize guztiz gaiztoa

Urruti-urrutiko herrialde batean, animaliek hitz egin, dantza egin eta kanta egiten duten batean, hiru txerrikume zeuden, herrixka batean beren familiarekin bizitzen. Aspalditik zebiltzan bidaia bat egiteko asmotan, mundua ezagutu eta aberastu nahian. Hala, egun batean, familiari eta auzokoei agur esan eta ekin zioten abenturari.

Haien amak, anbulantzi gidaria zenez larrialdiei buruz asko zekienak, esan zien:

- Kontu handiz ibili, ekaitzaldia dator eta. Egun batzuk barru izugarritzko tornado bat iritsiko da, “Otso” izenekoa, eta aterpe bat bilatu beharko duzue zuen buruak babesteko.
- Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? – Galdetu zuen anaia zaharrenak.
- Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? – Abestuz errepikatu zuten bi anaiek.

Hala joan ziren hirurak kantu-kantari eta saltoka, ez baitzioten beldurrik haizeari ezta ekaitzari ere.



Luze ibili eta gero leku batera iritsi ziren, denbora batez bizitzeko gogoko zutena: ibai batetik gertu zegoen, baso baten ondoan, eta belardi bat zegoen lorez beteta.

- Uste dut amari kasu egin eta lekuren bat bilatu beharko genukeela gure buruak babesteko. Ondo iruditzen etxe bat eraikitzen badugu? Nik arkitektura ikasi dut eta badakit nola egin etxe sendoak eta iraunkorrak – proposatu zuen anaia zaharrenak.
- Ondo iruditzen zait – esan zuen erdikoak – baina ez dut zementua eta adreiluak zamatzeko gogo handirik. Hemen zuhaitz asko dagoenez, egurrezko etxola bat egingo dut niretzat, udalekuetan egiten erakutsi zidatena bezalakoa.
- Ederki – esan zuen txikiak – baina aspergarria da egurra moztea. Niretzat lastozko etxe bat egingo dut, belardian dagoen belar guzti honekin. Interneteko tutorial batean ikusi nuen: Nire etxea leuna eta eroso izango da eta belar eta lore usaina izango du. Gainera, zuek baino lehenago bukatuko dut eta esploratzera irten ahal izango naiz.
- Uste dut hobe litzatekeela etxe gotor bat egitea, baina zuen erabakia errespetatuko dut. Laguntza behar baduzue, esaidazue – eskaini zen anaia zaharrena.

Hala ekin zioten lanari hirurek: anaia zaharrenak bere etxetxoaren plano bat egin zuen. Etxe txikia baina sendoa izango zen, tximinia batekin eta haizea jasateko modukoa. Gero, beharrezko material guztiak inguratu ondoren hasi zen eraikitzen, poliki eta seguru.

Erdiko anaia basora joan zen adar eta enbor bila. Tamainaren arabera ordenatu zituen etxea polit gera zedin eta gogor iltzatu zituen eror ez zitezen. Bere etxea zoragarria zen eta bi anaien miresmena piztu zuen.

Anaia txikiak belardian zegoen lasto lehor guztia bildu zuen. Hainbeste lasto zegoenez etxe handi-handi bat eraiki ahal izan zuen, biguna eta leuna. Loreekin apaindu zuen eta, amaitzen lehena izan zenez, jolastera joan zen ibaiertzera. Alde egiten ikusi zuten anaiek lanean jarraitzen zuten bitartean. Hasperen egin zuten, haiek ere tarte batez jolas egin nahi zutelako.



Anaia zaharrena bere etxearen azkeneko xehetasunak amaitzen ari zenean, haize leun bat gerturatzen hasi zen.

– Anaiok, sar zaitetze etxeetan, Otso tornadoa datorrela uste dut.

– Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? – Erantzun zioten txantxetan. – Baina minutu gutxi batzuetan, haize leuna oso haize zakar bilakatu zen, jolasten utziko ez ziena. Hala, etxeetan babestu ziren.

Haizea iparraldetik zetorren, jolas egiteko ezertxo ere aurkitu ez zuen izotzezko basamortuak zeharkatu ondoren, eta beraz gauzak astintzeko gogo biziz ari zen bidea egiten, herrialdeko animaliak beldurrarazten eta kaosa sorrarazten. Oso gogoko zuen kaosa. Haize hotza eta guztiz gaiztoa zen.

– Auu – Xuxurlatu zuen haizeak lastozko etxetxora hurbiltzean. Isilpean esan zuen, ez baitzuen uste ahalegin handirik egin beharko zuenik behera botatzeko.

– Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? – abestu zuen anaia txikiak lastozko bere ohetxo erosoan atsedean hartzen ari zen bitartean.

– Auuuuu – Errepikatu zuen haizeak, lastozko etxearen kontra leunki kolpeka ari zen bitartean. Zurrunbilo txiki batekin nahikoa izan zuen etxeko lasto eta lore guztiek



airetik zitzu bizian eztanda egiteko. Txerritxoa hotzez eta beldurrez ikaratuta geratu zen, bere burua babesteko ezer ez zuela.


– Zatoz korrika, zatoz nire etxera! – esan zuen erdiko anaiak.

Bi anaiak egurrezko etxean babestu ziren, soberan zuen egurrarekin erdikoak egin ahal izan zituen kulunkaulki batzuetan eroso-eroso eserita. Brikolaje zale porrokatua zen txerrikume hura.

– Auuuuuu-uu-uu – Hasi zen uluka haizea, etxeak behera botatzen zituenean dramatiko jartzea gustuko zuena.

– Nor da haize guztiz gaiztoaren, guztiz gaiztoaren beldur? – Abestu zuten bi anaiak batera.

– Zuek bai izango zarete nire beldur – Pentsatu zuen haizeak, haserretzen hasita. – Auuuuuuuuu! – garrasi egin zuen amorrazioz biraka leiho batetik sartu bitartean. Etxe barruan zela, paretetan joka hasi zen ezpalduta utzi zituen arte.



Bi anaiak negarrez ari ziren nahigabetuta: zergatik iritsi ote zen hain haize hotz eta guztiz gaizto hura? Lasterka joan ziren anaia zaharrenaren etxera. Haien zain, prest zegoen hura:

– Mugi zaitzete: iltzatu ohol hauek leihoetan haizea hortik pasa ez dadin, eta jar itzazue zaku hauek atean. Horrek geldiaraziko du. – Anaiak animatzearren, “Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur” abesten aritu zen beheko suan zintzilik zuen pertz batean txokolatea berotzen ari zela barrenak epeltzeko.

Haizea eten egin zen tarte batez, txerrikume zaharrenaren adreiluzko eta harrizko etxea eraso aurretik. Abiada hartu nahi zuen, guztiak urruti-urrutiraino airean eztanda egin zezan eta txerrikumeak ikaratu zitezten.

– AUUUUUUUUU – Ulu egin zuen indarrez etxe ondoan zurrunbiloka ari zen bitartean. – AUU-UUUUU!!!! – Garrasi egin zuen haserre bizian, irmo zirauten hormetan kolpeka.
– Auuuuuu! - Oihu egin zuen leihoen kontra, zabaldu ezinik.
– AAAAAAUUUUUU! – Garrasi egin zuen atearen kontra, apur bat ere mugitu ezinik.
– Au-Au-AU-AUUUUU – Jarraitu zuen ekin eta ekin etxearen inguruan biraka, bere onetik aterea.

iAAAAUUUU!

Hiru txerrikumeak, haizeak beren etxea suntsitu ezin zuela ikustean, animatzen hasi eta kantu-kantari eta barrez aritu ziren.


- Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? Nor da haize guztiz gaiztoaren, guztiz, guztiz, guztiz gaiztoaren beldur?
- AUUUUUIIIII! – Marru egin zuen haizeak azken saio batean: tximiniatik sartzea.

Tximiniatik jaistean, haizea (hainbeste uluren eta biraren ondoren nekatuta) txokolatea berotzen ari ziren pertzarekin jo zen aurrez aurre. Orduan, bat batean lurrunezko hodei bihurtuta, sartu zen lekutik airean irten zen hegoalderantz ihesi, Kumetxo izeneko haize-pasa leun eta epel baten antzera.

- Haizea joan egin da? – Galdetu zuen anaia txikiak.
- Haizea joan egin da! – Esan zuen, oso pozik, erdiko anaiak
- Auu- auu! Nor da haize guztiz gaiztoaren beldur? – Abestu zuten hirurek.

Une hartatik, hiru anaiak asko ahalegindu ziren bidaietan beren buruak babesten lagunduko dieten gauzei buruz ikasten. Zeren eta munduan haize guztiz gaiztoak, su itzelak, euri gupidagabeak eta itsaso haserreak topatuko baitzituzten eta bazekiten beharrezkoa zela zailtasunak ezagutzea eta kalteei aurrea hartzen ikastea. Gauza bat baita abentura bat eta beste bat, oso bestelakoa, larrialdi bat.

Eta nonahi joanda ere, inoiz ere ez ziren ahaztu haien amari postal bat bidaltzea.





Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argtaratuta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.

Ilustrazioak sortzeko Freepik.com-en eskuragarri dauden jatorrizko bertsioak egokitu dira